Usurbilgo Udala

2023/02/14

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2023KO OTSAILAREN 14EAN GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Ainhoa Arrozpide Landa.

Idazkariordea: Olatz de Miguel Arnaiz.

Ez dira bertaratu: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- 2023KO OTSAILAREN 7KO EZOHIKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2023ko otsailaren 7ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- TXOKOALDEKO ARKAITZ-GAIN ETXEAN (URDAIAGA 24) JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2020-0104
2020-OHAN-0001

LORENZO URDANGARIN KAMINO jaunak, Txokoaldeko Arkaitz-gain etxean (Urdaiaga 24) jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko irailaren 8an, zera erabaki zuen: LORENZO URDANGARIN KAMINO eta AGUSTIN URDANGARIN KAMINO jaunei, Txokoaldeko Arkaitz-gain etxean (Urdaiaga 24) igogailua jartzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	59.560,00 €
Obra amaierako ziurtagiria:	**41.827,73 €**
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 336,13 €
	Fidantza (%120): 403,35 €

2023/02/14

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, LORENZO URDANGARIN KAMINO jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancon jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2023ko otsailaren 7an, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI*:* Txokoaldeko Arkaitz-gain etxean (Urdaiaga 24) jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2021eko martxoaren 29an ezarritako 403,02 €-tako fidantza (IE 32-2021) itzultzeko agintzea kontuhartzailetzari honako kontu zenbakian:

HIRUGARRENA: Erabakia errenta teknikariari jakinaraztea, zergen kitapena egin dezan.

LAUGARRENA: Erabakia diruzainari jakinaraztea, Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko fidantza itzul dezan.

BOSGARRENA: Erabakia berri interesatuari ematea.

3.- MATIA SERVICIOS SOCIALES SLU ENPRESARI N-634 ERREPIDEAREN ETA KALEZAR AUZOAREN ARTEAN BI IGOGAILU ETA BI AUTOBUS GELTOKI ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2022-0307
2023-OHAN-0001

MATIA SERVICIOS SOCIALES SLU enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetan eraikitzen ari den berrikuntza gunearen eta zaintzadun etxebizitzen irisgarritasun unibertsala bermatzeko, N-634 errepidearen eta Kalezar auzoaren artean oinezkoentzako lotura sistema irisgarri bat izateko, bi igogailu eta bi autobus geltoki eraikitzeko udal baimena eskatu du.

Usurbilgo Udala

2023/02/14

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 1.359.010,10 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.A artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 11.871,58 €
	Fidantza (%120): 14.245,90 €

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Joxean Eransun Arancon jaunak, 2023ko urtarrilaren 31ean ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI*:* MATIA SERVICIOS SOCIALES SLU enpresari, N-634 errepidearen eta Kalezar auzoaren artean bi igogailu eta bi autobus geltoki eraikitzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean**:

    - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 11.871,58 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (14.245,90 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

      14.245,90 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: 2023-OHAN-1"* jarriaz kontzeptuan.

- Obrak hasteko, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri eta udal aparejadorearekin **zuinketa akta** izenpetu beharko da.

- REHABITE AHOLKULARITZA TEKNIKOA SLP taldeko Aritz Berastegui Aizpurua, Enrike Etxeberria Lekuona eta Josu Laguardia Iginitz arkitektoek 2022ko abenduan idatzitako Exekuzio Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

- IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA. Ezinbestean bete beharko da

indarrean diren EKT-DB-SUA, Irisgarritasun Araudia (1997ko Legea eta ingurune hiritar eta eraikinetako arau teknikoei buruzko 68/2000 Dekretua) eta TMA/851/2021 Agindua (espazio publiko urbanizatuetara iristeko eta horiek erabiltzeko oinarrizko irisgarritasun-baldintzei eta diskriminaziorik ezari buruzko dokumentu teknikoa garatzen duena).

Horiei dagokienez, honakoak azpimarratu nahi dira:

- Eskailerak bi alboetarako eskubanda bikoitz batez hornituko dira (68/2000 Dekretuaren II Eranskinaren 3.7 artikulua).
- Maila bakoitza 5 cm-ko zabalerako zerrenda batekin seinaleztatuko da luzera osoan. Zerrenda hori mailaren alde horizontalarekin berdinduta egongo da, ertzetik 3 cm-ra, eta eskailera-mailaren zoladurarekin kontrastatuko da, ehunduraz eta kolorez (68/2000 Dekretuaren II Eranskinaren 3.7.16 artikulua eta TMA/851/2021 Aginduaren 15.3.f artikulua).
- Igogailuaren atearen kanpoko aldearen aurrean, eta geltoki guztietan, ukipen-zoladurako zerrendak jarriko dira, norabide-adierazlea dutenak, sartzeko norantzaren zeharkako norabidean, 45. eta 46. artikuluetan ezarritako parametroei jarraituz (TMA/851/2021 Aginduaren 16.8 artikulua).

- UDALAZ GAINDIKO BAIMENA. “A.96/A.97 Miravalle” eremuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren N-634 errepidearekin egiten du muga. Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren arabera, Administrazioaren baimena beharrezkoa izango da nahiz errepide, bide eta herri jabariko guneetan nahiz bideak babesteko guneetan edozein motatako jarduera, lan eta obra egiteko. Arau horretan adierazitako baimenak emateko eskumena, errepide edo bidearen jabe den administrazioari dagokio. Hortaz, lanak hasi aurretik Aldundiaren baimena aurkeztu beharko da.

- AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK: Sustatzaileak udal zerbitzu teknikoei eskatuko dizkie, hala badagokio, udal zerbitzuen sareekiko loturak gauzatzeko beharrezko baldintzak eta jarraibideak.

- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 3 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
  - Obraren egikaritza epe gehiengoa: 9 hilabete.

- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obren egikaritzan lurzoru publikoa okupatu behar bada, dagokion baimena eskatu beharko da.

- Edonola, indarrean den araudia bete beharko da, bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudia: AASS Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), etab.

- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.

- BEHIN OBRAK BUKATU OSTEAN, ETA LEHEN ERABILERA BAIMENA ESKATUKO DA ONDORENGO DOKUMENTUZ LAGUNDURIK:

    - Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.
    - Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
    - Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.
    - Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.
    - Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik, elektraindarraren hornikuntza sareko "Loturako Buletina"ren kopia.
    - Igogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.

BIGARRENA*:* Obrak hasi aurretik, Plenoak 2020ko maiatzaren 28an hartutako erabakia baitan obrari dagozkion **udal-tasak ordaindu** beharko dira.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Alkateak proposatuta, batzarkideek aho batez hurrengo puntua gai-zerrendan sartzea berretsi dute.

4.- URTE NATURALA HARTZEN DUTEN KIROL JARDUEREN 2022KO DIRULAGUNTZEN ZURIKETA BIRBANAKETAREN ONDOREN.

Esp.zk.: 2022KDKE0001

Ikusirik

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko otsailaren 17ko datan, norgehiagoka erregimeneko 2022. urterako dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Aipatutako oinarriak 2022ko matxoaren 8an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen. Guztira bederatzi eskaera jaso ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko uztailaren 21eko datan, dirulaguntza kopuruak onartu zituen eta baita 1. zatiaren ordainketa ere.

Usurbilgo Udala

2023/02/14

Eskatzaileek dirulaguntzaren zuriketa aurkeztu zuten.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko otsailaren 7ko datan, urte naturala hartzen duten kirol jarduerentzat izendatutako dirulaguntzen kitapena onartu zuen.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2020-01-22).
- Dirulaguntza oinarriak (GAO, 2022-03-08).
- 2023/02/02ko teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Kirol elkarteen ohiko kirol egitasmoak burutzeko dirulaguntzen baimentze eta xedatze gehigarri hauek onartzea:

Eskatzailea	2. zatia
Zubieta PE	163,40€
Pagazpe	112,94€
GUZTIRA	**276,34€**

Bigarrena: Bigarren zatiaren ordainketak partida honen kargura joango dira:

1 4300.481.341.00.01 Kirol taldeen ohiko dirulaguntza zuzena

Hirugarrena: Kontuhartzaileari erabakiaren berri ematea.

Laugarrena: Interesatuei erabakia jakinaraztea.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:40ak direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariordeak, ziurtatuz.